

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gure proiektua funtziona dezan; alde batetik, webgune ofizial bat zabaltzea pentsatu dugu. Horren bidez, bezeroek gure enpresarekin kontaktuan jarriko dira informazioa jaso daitezen: jarriko ditugun salneurri ezberdinen berri izateko, zalantzak izatekotan gureki kontaktuan jartzeko, gure enpresaren ezaugarriak ezagutzeko, etab. Horretaz gain, sare sozialeen bidez ere gure enpresaren berri emango dugu, ahalik eta gehien heda dezan.

Bestetik, ekoizpenarekiko, energia berriztagarria lortzeko beharrezko material egokia aukeratuko dugu; hain zuzen ere, LIBERA enpresarekin batera itsasoko hondakinak eskuratuko ditugu. Horrela, bezeroei segurtasuna eskainiko diegu, jakin daitezen lortuko duten energia berriztagarria kalitatezko produktuetatik datorrela.

Azkenik, arazoak izatekotan, haiei egoki aurre egingo diegu. Hots, makinariarekin arazoak baditugu edo tresnaren bat apurtzekotan, teknikari profesional bat kontratatzea erabaki dugu, apurtu den tresna edo makina konpon dezan. Ondorioz, arazoa konpondu egingo dugu eta bezeroek ez dute segurtasun faltarik nabarituko, eskuratuko duten energia egoki eta arazorik gabe lortuko dutelako.

